


...Elkarrizketa



Josu Imanol Unanue

• TXO HIESA KO KIDEA •

«Gizarteak borroka hau bukatutzat eman du»

Hiesaren aurkako jardunaldiak egin dituzte asteburuan Bermeen.

■ Jardunaldiotan parte hartze handia izan duzue. Gustura zaudete izandako arrakastarekin?

Bai. Oso balantze ona egiten ahal dugu. Espainiako 47 elkarte etorri dira. Gainera, elkarte horietako jendea oso ondo prestatuta etorri da. Herritarrek ere oso jarraera ona izan dute.

■ Zer egin duzue asteburuan?

Gure artean zazpi proiektu eztabaidatu ditugu, eta bat hitzartu ondoren, proiektu horrekiko konpromisoa hartu dugu. Eta 2002. urtean Bartzelonan egingo den munduko kongresua ere aztertu dugu.

■ Azken aldian asko hitz egin eta idatzi da botika berrien inguruan. Hori ere eztabaigai izan duzue.

Batetik, oso kritikoa gara botika berriekin. Haien ondorioak uste baino txarragoak izan dira, zenbait jende ezin du hartu. Bestalde, botikak emateko orduan gure iritzia ez da kontuan hartzen, gu konturatu gabe ateraten dira.

■ Oraindik hies soziala edo bazterketa soziala hor da.

Bai. Eta gizarteak borroka hau bukatutzat eman du, jada ez gara hainbeste hilzen eta. Jendea ahaztu egin da kutsatuta gaudela. Seropositibo gehienak ezkutuan bizi dira oraindik.

Iban Arregi
DONOSTIA

...esaera

«Makur izanagatik igitaia, zuzen epaitzen du lastogaia»

...hizpideak

Reno, euskal hiriburua astebetetz

■ Bestela ere euskal kulturaren lankean nabarmenduta dagoen Reno hiriak euskaltzale askoren arreta bilduko du aste honetan, Euskal Astearen ospakizunean. Hara bertaratuko dira, atzo hasi eta igande bitartean, EEBBetako milaka euskaldun eta euskaldun ondorengo, sustraiak gogoan dituen herri bateko kide direla adieraziz. Zabala da, era berean, Euskal Herriatik bertatik joango den ordezkartza: erakundeak, kultur taldeak, artistak...

Aurten 40 urte beteko ditu Renoko Euskal Jaia, ondoren Estatu Batuetako euskal estatuetan (Nevada, Kalifornia, Idaho, Utah, New York, Florida, Oregon...) antolatuta diren Euskal Jaian aitzindari. Renokoa izan baitzen lehena. Eta horrelako efemeride biribil batek, 40 urte, merzei duen gisan egingo dute: orain arte hiru eguneko Euskal Jaia

zena Euskal Aste bihurtu dute, Euskal Herriko kulturak sortzen duenaren erakusgarri. Hango mentalitatera egokitu-ta, bistan da. Renoko Euskal Asteko antolatzaileek ia erabat folkloreaken zentratutako festari, folkloreakari inolako gutxiespenik egin nahi izan gabe noski, kultur eduki arintzagoa erakusteko ahalgina egin dute astearen egitaraua prestatzean. Horren adierazgarri da, adibide bat jartzeagatik, euskal zinemari eskainitako tartea.

Tradizio handia du Renok euskal gaietan. Hango unibertsitateko Basque Study Programe (Euskal Ikasketen Programa) Euskal Herriatik kanpo euskal gaietan dagoen ikerketa eta ikasketak gunerik handiena da, urteetan bertako euskaltzale anonimo askok egindako lanari esker. Orduan erreindako hazia- ren uzta da atzo hasitako Euskal Astea.

EAren arazo publikoak

■ Inazio Oliverik utzi egin du EAko idazkari nagusi kargua. Desadostasunak direla medio, agur esan dio postuari igandeko Bazar Nazionalaren ostean. EAko zuzendaritzak dimisioagatik sentitzen duela azaldu du, baina ez dio jarraitzeko eskatu. Aitzitik, beste sektore batek, Antonio Alberdik esaterako, babesa azaldu diote. Hala, EAko barne liskarrak publiko egin dira, kongresurako lau hilabete falta direla.

Tourra, azken astean

■ Frantziako Tourra aste erabakigarrian sartu da. Lance Armstrongek Alpe-etan erakutsi zuen mendian ere indartsuena dela, eta, makalaldirik ez badu, Pirinioak ere aise gaindituko ditu. Zalantza bakarra taldeak erantzungo ote dion da, batik batik lehia lehen kilometroetatik hasten bada. Horrek ez dio mesederik egingo estatu batuarrari. Ez eta Abraham Olanori ere. Anoetaraz uste baino hobeto gainditu zituen Alpeak, eta bigarren pos-

tuan da sailkanen nagusian. Olanorentzat egokiak dira Pirinioetako mendateak, baina Kelmek eta Banestok egurren hasieratik ematea erabakitzen badute Olanok lanak izango ditu minutu gehien ez galtzeko. Abrahamek Parisko podiumean izateko aukera handiak ditu Pirinioetako bi egun hauetan hiru minututik gora galtzen ez badu, larunbateko erlojupekoa oso proposa baina beretzat: luzea eta laua.

...pertsonaiak



BERTIE AHERN • Irlandako lehen ministroak adierazi duenez, agian atzeratu egin beharko litzateke talde armatuek armak entregatzeko epea. Adierazpetanok haserretu egin dituzte unionistak.



PHILIPPE JAFFRE • Elf-Aquitaineko buruak Total Fina petrolio industria erosteko proposamena aurkeztu du. Bi enpresek bat egingo balute, munduko laugarrena izatera pasatuko litzateke petrolio arloan.



JUAN MARIA APELLANIZ • Arkeologo honek azterketa bat egin du Paleolito garaiko marrazkiei buruz. Garai hartako marrazki eta eskulturak egin zituztenak artistak zirela esan du.

...datua

14.000 ikusle bildu ditu Donostiako Antzerki Feriak, antolatzaileren arabera. Iaz baino lau mila lagun gehiago izan omen dira antzerkia ikusten.

...adierazpena

«Siu-etenaren alde azkenaldian EAjk egin duena nabarmentzeko da»

Emilio Ibarra
BBV bankuko lehendakaria

... seiko urrea

FITO RODRIGUEZ

Txillardegia



H itza entzunda toki bateko izendapena dela badakigu denok. Horrela, nonbaiten *Petrikoea* den etxea Lapurdin *Petrik* baita gisa azaltzen zaigu. Astigarragan, esate baterako, *Petritegi* moduan agertuko den bitartean.

Dena den, *Txillardegia* adierazkeran gogora datorkiguna ez omen da orube jakin bateko erreferentzia Jose Luis Alvarez Enparantza idazleak aspaldidanik erabili ohi duen goiztiena baizik.

Atzo, Iruñeko Udako Unibertsitatearen lehenengo egunean, Txillardegia hizkuntzalarria eta irakaslea omendua izan zen. *Euskal Herria Helburu* leloa grabaturik daraman makila eman

zitzion, eta, horrekin batera, berak literaturaz, fonologiak, politikaz edota filosofiaz (*Peru Leartzako hura berreskuratuz...*) idatzitako zenbait pasarte ozenki eta publikoki irakurtzeaz gain, puntakoa dugun beste intelektual batek. Koldo Izagirrek berak, eskeimio gorazarreaz gozaitzeko parada izan genuen.

Txillardegik horrenbeste maite duen euskarak, ordea, ematen digu berak hautatu-

riko ezizen horrekin beste abalezko hurbilpena. Izan ere, *-egi* atzizkia erabiltzen dugunean zerbaiten neurri-gabeko metaketa aril gara adierazten. Bil-

tegiak, ardandegiak edo okindegiak lekuko. Eta, nik uste, Txillardegiren funtsezko ezaugarria, bai berak jorratu dituen arlo desberdinetan baita berezko izatean ere, hori ere bada. Hauxe, neurrigabekoa dela.

Alde batetik, bere hiru-

geita hamar urte hauetan disziplinara oso diferentetan neurritz kanpoko lana egiteko gauza izan baita, baina, horrezaz gain, egindako guztietan neurririk gabeko jarraerak erakusteko gaitasuna edukiko izan duela. J.P. Sartrek norberaren egari erakutsitako jitea bera aiarrikatu du beti Txillardegik. Orain, erretireta omen datorkiolata, gorapimena ugari entzuteko tenorean dago, atzoko UEUko ekitaldia barne. Hala ere, berari buruz ez dut uste datorren laudorioen ekaitzean inoiz diplomatikoa, neurtua eta mota horretako izenlagunak aditu behar izango ditugunik. Izan ere, hori ez da bera, eta horrela ez izateagatik da dena. Txillardegia. Gehiegia.